



eurored del deporte

KIROLAREN EUROSAREA

MEMORIA 2008



AURKIBIDEA

1. HITZAURREA.....	3
2. JARDUERAK	5
2.1. Jarduera teknikoak	5
2.1.1. Aholkularitza.....	5
2.1.2. Berezko jarduerak	5
2.2. Kirol-jarduerak.....	6
2.2.1. Lankidetz.....	6
2.2.2. Berezko jarduerak	6
2.2.3. Jarduerak Kirolaren Eurosareko kideekin	7
3. FINANTZAKETA	11



1. HITZAURREA

Egokia deritzogu, memoria hau aurkezteko, kirolaren munduan bizi dugun uneari buruzko gogoeta batzuk egiteari, une honek eragina izango baitu, zalantzarik gabe, gure Kirolaren Euro sarearen bilakaeran eta ibilbide onean.

Lehenik eta behin, onartu behar dugu ekonomiaren esparruan pairatzen ari garen “LETRA LARRIZ IDATZITAKO KRISIAK” zerikusia duela, eta gerora ere izango duela, jarduera fisikoarekin eta kirolarekin. Argi dago orain arte jarduera horiek sustatzeko erabili izan diren baliabide ekonomiko publikoak murriztu egingo direla, gizartean lehentasuna duten beste eskaera batzuei erantzuteko beharraren arabera.

Halaber, kirolaren finantzaketa pribatua ere "krisia" jasaten ari da, eta horrek, ez bairik gabe, eragina izango du ikuskizuna den kirolaren alderdi horretan, betidanik bizi izan baita laguntza horiei esker.

Hala eta guztiz ere, uste dugu gure esparru hau berritzailea izan behar dela, eta ahultasunak aukera bihurtu behar dituela; hala bada, irudimena areago garatu beharko dugu, gizarteak jarduera fisikoa eta kirola egiten jarrai dezan, osasunarekin, ongizate eta kohesioarekin eta elkartasunarekin lotutako helburuak lortu, eta jarduteko modu “merkeagoi” ekin ahal izateko.

Beste alde batetik, aukera ona izango da Lisboako Ituneko erabakiak garatzea, horien bitartez Europako Batzordeari eskumenak esleituko zaizkiolako kirolaren esparruan, eta eskumen horiei esker Europako zenbait kirol-programari –eta horien artean Kirolaren Euro sareari– zuzendutako dirulaguntzak gaitzeko aukera egongo delako.

Gure sarea egoera onean dago une honetan, Europako Batzordeak gonbidatu eta gero joan den azaroan Biarritzen antolatu zen Kirolaren Europako Foroan parte hartzeraz.

Foro horretan, besteak beste, Europako Kirolaren Liburu Zurian zehaztutako neurriak garatzen dituen Pierre de Coubertin Planaren aurrerakina aztertu zen. Planak aurreikusita dauden 53 ekintzetatik 12 garatu ditu dagoeneko, eta ekintza guztiek zerikusia dute Europako Batzordeak bere gain eskumenak hartu baino lehenago egindako azterlanekin (informazio hori guztia Europako Batzordeko Kirol Unitatearen web orrialdean aurki daiteke: <http://ec.europa.eu/sport>).

Horrez gain, adierazi nahi dugu **kirolak ekonomiaren alorrean duen garrantzia**, krisia krisi, **handia izango dela aurrerantzean ere**, European BPGd-ren % 3tik hurbileko batezbestekoa baitu, eta alderdi esanguratsua baita etengabeko hazkunderako, batez ere enpleguaren sorrerari, lurraldeen garapenari, turismoaren sustapenari eta ingurumena zaintzeari dagokienez.



Hausnartzeko daukagun beste alderdi bat Kirolaren Eurosarearen barne garapena da. Ildo horretan adierazi behar dugu sareak aktiboak direla dituzten “LOTUNEAK” ere aktiboak diren bitartean. Hala bada, azken urte honetan, lotuneak benetan mugitzen hasi direla esan behar dugu, batez ere Andaluzian eta, zehazkiago, Guadiana aldean.

Ayamonteko Udalaren lanak oso emaitza onak eman ditu, eta muga zaharraren bi aldeetako udalerrien eta kirol-erakundeen arteko harremanak gidatzen ditu orain. Hori, zalantzarik gabe, sareko beste lotune batzuetara eraman daitekeen jarduna da, guztien onura ekarriko duen hazkundera bultzatuko duena.

“Lotuneetan” egin den lan horri esker, sarea handitu egin da azken sei hilabeteetan, sareari gehitu baitzaizkio Ayamonteko Udala eta Donostiako Txuri Urdin izotz gaineko hockey kluba. Kide berriak gehitze horrek trakzio-eragina izango du beste erakunde batzuk Eurosarean eta Eurosareko lotune geografikoetan sartzeko. Hala bada, Huelvako lotuneak Algarveko auzo herrietako lotuneak erakarri ahal izango ditu, eta Txuri Urdin Izotz Hockey klubak Pirinioetako izotz gaineko hockey klub gehiago.

Espero dugu hausnarketa hauek balio izatea guztien ekintzak sustatzeko, sarearen hazkundera lortzearen.



2. JARDUERAK

Atal honetan, jarduera teknikoak eta kirol-jarduerak azalduko ditugu azaletik, eta horiei buruzko informazio gehiago jarduerari dagozkien eranskinetan jasoko dugu.

2.1. Jarduera teknikoak:

Kirolaren Eurosareak egindako jarduera teknikoak bi alderditan garatu dira:

2.1.1. Aholkularitza:

- Baiona-Donostia eurohiriari aholku ematea kirolaren alorra garatzeko. Hainbat lan saio burutu dira, eta horietan parte hartu dute kargudun politikoek nahiz teknikariek.
- Aholku ematea Donostiako Bera Bera R.T., Gros Xake Taldea eta C.H.H. Txuri Urdin klubei Baionako Aviron Bayonnais, Echiquier Bayonne – Adour, Angeluko Hormadi, Anglet Olympique Handball, Oceanic Karaté Club Biarritz, Ur Ikara eta Anglet Côte Basque Basket klubekin mugaz gaindiko kirol-lankidetzan aritzeko, modalitate hauetan: zikloturismoa, errugbia, xakea, izotz hockeya, arraunketa, karatea, esku-baloia eta emakumezkoen saski-baloia.

2.1.2. Berezko jarduerak:

- Kudeaketa Batzordea. Madrilen elkartu zen, Kirol Kontseilu Gorenaren egoitzan, 2008ko otsailaren 27an.
- Mugaz gaindiko IX. Mintegia, kirol-lankidetzari buruzkoa, Alt Empordà eskuladeko Figueresen (Girona, Katalunia) burutu zena, 2008ko urriaren 31n.
- Ohiko Batzar Nagusia, Figueresen (Girona, Katalunia) egina, 2008ko urriaren 31n.



2.2. Kirol-jarduerak:

Kirolaren Euro sarearen kirol-jarduerak hiru alderditan banatu dira:

2.2.1. Lankidetzak:

- Lankidetzak Bidasoa-Txingudi Mugaz gaindiko Partzuergoarekin (Irun, Hendaia, Hondarribia), antolatzen dituen kirol-jardueren egitaraua garatzeko.
- Lankidetzak Baiona-Donostia Eurohiriarekin, klubetako arteko lankidetzak hitzarmenen bidez kirolaren alorreko harremanak sustatzeko.
- Lankidetzak Bera Bera R.T., Gros Xake Taldea eta C.H.H. Txuri Urdin klubekin, antolatzen dituzten kirol-jardueren egitarauak garatzeko.

2.2.2. Berezko jarduerak:

- VII. Eurokirola, kirol-topaketa, 2008ko urriaren 30ean eta 31n eta azaroaren 1ean eta 2an egin, Alt Empordà eskualdeko L'Escalan (Girona – Katalunia), naturako abentura-kirolen modalitatean.



2.2.3. Kirolaren Eurosareko bazkideen jarduerak:

2.2.3.1. Bera Bera R.T. kluba:

Jardueraren deskribapena / Descripción de la actividad	Parte hartu duten bazkideak / Socios participantes	Lekua - Data / Fecha - Lugar	Bestelako informazio interesgarria / Otra información de interés
7. eurohiriko zikloturisten ibilaldia donostia - baiona- donostia	802 parte-hartzaile	Donostia – Baiona, 08-05-11	aviron bayonnais klubarekin lankidetzan
IV. hondartzako boleibol mugaz gaindiko lehiaketa	180 parte-hartzaile	Donostia, 08/abuztuaren 14an, 15ean eta 16an	bi sexuetako 53 talde. 5 talde frantses, 2 italiar, 2 aeb, 1 alemania
XVI. teink lehiaketa (bateleku tradizionalak)	80 parte-hartzaile	Plentzia – Donibane Lohitzune (2008ko abuztua - donostia 08.08.01)	donibane lohitzuneko ur ikara klubarekin lankidetzan
V. mugaz gaindiko karate txapelketa	70 parte-hartzaile	Donostia	biarritzeko oceanic karate klubarekin lankidetzan
Karate entrenamenduak, pirinio atlantikoetako selekzioarekin	25 parte-hartzaile	Biarriz	pirinio atlantikoetako federazioarekin eta biarritzeko oceanic klubarekin lankidetzan
Klubetako atalen arteko mugaz gaindiko trukeak	200 parte-hartzaile	Biarriz / Angelu - Donostia (kirol-denboraldi osoan)	saskibaloia, anglet cote basque-ekin – eskubaloia, anglet olimpic handball-ekin – karatea, oceanic karate biarritz-ekin – kirol egokitua, handisport pays basque-ekin – errugbia, aviron bayonnais-ekin – zikloturismoa, aviron bayonnais-ekin - ur ikara
Mugaz gaindiko karate-stage (kumite)	25 parte-hartzaile	Donostia, 08.02.15	oceanic karate club biarritz-ekin lankidetzan
Mugaz gaindiko karate-stage	20 parte-hartzaile	Biarriz, 08.03.19	oceanic karate club biarritz-ekin lankidetzan



2.2.3.2.- C.H.H. Txuri Urdin I.H.T.:

Jardueraren deskribapena / <i>Descripción de la actividad</i>	Parte hartu duten bazkideak / <i>Socios participantes</i>	Lekua - Data / <i>Fecha - Lugar</i>
Figuereseko bilera	Guztiek	Figueres
Madrilgo bilera	Guztiek	Madril
Pirinioarteko senior lehiaketa	Angelu, txuri, puigcerda, jaca, bartzelona, gasteiz	Liga
Pirinioarteko 18z beheko lehiaketa	Angelu, Bordele, Andorra, Puigcerda, Toulouse, Font Romeu, Jaca, Bartzelona	Liga
Pirinioarteko 15ez beheko lehiaketa	Angelu, Bordele, Andorra, Puigcerda, Toulouse, Font Romeu, Jaca, Bartzelona	Liga
Kirol-eskolen arteko topaketak, 13z beheko, 11z beheko, 9z beheko kategoriak	Angelu, Bordele, Andorra, Puigcerda, Toulouse, Font Romeu, Jaca, Bartzelona	Asteburuetak topaketak

2.2.3.3.- P.M.D. Ayamonte:

Jardueraren deskribapena	Parte hartzen duten bazkideak	Eguna / Lekua	Bestelako informazio interesgarria
Guadiana ibaiaren igoera eta jaitsiera belaontzian. Jarduera hau asteburu batean egiten da, eta bi etapa ditu: larunbatean, ibaiaren bokaletik Sanlucar de Guadiana/Aloutim-eraino; eta igandean, kontrako bidea. Urtero, lekuz aldatzen dira helmuga eta lehenengo etapan egiten den bizikidetasun-afaria.	Udal hauek: Portugaleko Vila Real de Santo Antonio eta Alcoutim, eta Espainiako Ayamonte eta Sanlucar. Klub nautiko hauek: Vila Realeko Guadianako ontzi-elkartea eta Ayamonteko Isla Canela klub nautikoa.	2008ko abuztuaren 23an eta 24an, Ayamonte/VRSA, Alcoutim/Sanlucar de Guadiana.	Ontzi mota guztietarako (beladun gurutze-ontziekin hasi eta belaoholetan amaituta) irekita dagoen lehiaketa da, eta ontzi mota ugari parte hartzen dute. Larunbateko etapa hartzen duen herriko jai da, lehiaketa egiten denean motordun ontzi asko lagun izaten baitira, eta udalerrian giro ederra sortzen baita gauean.
Igeriketa-zeharkaldia. Guadiana ibaia zeharkatzen da bazter batetik bestera. Irteera bazter batean dago eta helmuga parez pareko bazterrean. Zeharkaldian, 150 igerilarik parte hartzen dute batez beste, eta Andaluzia eta Algarvekoak dira, gehienbat.	Udal hauek: Vila Real de San Antonio eta Ayamonte. Klub hauek: Vila Realeko Pic nic kirol-kluba eta Guadianako ontzi-elkartea, eta Ayamonteko Isla Canela klub nautikoa eta CD. Bajamar. Horiez gain, Ayamonteko Ocio Sur enpresa.	2008ko abuztuaren 30ean. Ayamonte/VRSA.	Kategoria askok parte har dezakete txapelketa honetan, bai federatuta daudenek, bai herritarrek. 1.500 m inguruko distantzian igeri egin behar da herri batetik bestera. Txapelketarako helmuga duen herria da sariak banatzeko eta igerilarie arreta emateko ardura duena.
"Rio Guadiana" piraguismo-arraunketa. Larunbat batean egiten da, itsasaldia gorantz doanean, 35 kilometroko distantziaz (Vila Real – Ayamonte), eta irteera txandakatu egiten da urtero, Alcoum eta Sanlucar de Guadiana udalerrien artean.	Udal hauek: Vila Real de Santo Antonio eta Alcoutim (Portugal), eta Ayamonte eta Sanlucar (Espainia). Klub nautiko hauek: Vila Realeko Guadianako ontzi-elkartea eta Ayamonteko Isla Canela klub nautikoa eta Bajamar kirol-kluba.	2008ko irailaren 20an. Irteera Ayamonte/Vila Realen eta helmuga Alcoutimen.	Lehiaketako K-1 eta K2 motako ontzietarako irekita dagoen txapelketa da, kategoria hauetan junior, senior eta helduak, gizonezkoak nahiz emakumezkoak; eta K.1 eta K-2 herrikoiak (turismo-ontziak), gizonezko nahiz emakumezkoak. 150 parte-hartzaile baino gehiago aritzen dira lehiaketan, distantzia luzea delako.
Guadianako Atletismoaren X Miliak. Lasterketa honek Vila Real de Santo Antonio eta Ayamonte hiriak zeharkatzen ditu, Guadiana ibaiaren gaineko nazioarteko zubian barrena, eta lasterka korritzen den distantzia 16.090 metrokoa da.	Udal hauek: Vila Real de Santo Antonio eta Ayamonte. VRSAko Pic Nic kirol-taldea eta moto-kluba, eta Ayamonteko atletismo-kluba eta moto-kluba.	2008ko azaroaren 9an – Ayamonte/VRSA – PICNIC kirol-taldea eta Atletismo Kluba.	600 lasterkarik baino gehiagok parte hartzen dute kategoria guztietan. Urtero, lehenago egindako txapelketen formatuaren arabera, atletismo-estadio batean dauden irteera eta helmuga aldatzen dira, eta VRSA n edo Ayamonten kokatzen dira.
Guadiana Behereko I. Jokoak. Egitarauaren barruan, era askotako kirol-diziplinak eta jarduera fisikoak antolatuta daude, herritarren talde desberdinei zuzenduta. Jolas-jarduerak nahiz lehiaketa-jarduerak egingo dira, eta proiektuan parte hartzen duten udalerrri guztietan burutuko dira (Erantsita doa iazko egitaraua).	Portugal: Vila Real de Santo Antonio, Castro Marin, Alcoutim eta Mertola. Espainia: Cartaya, Ayamonte eta Beturia mankomunitatea, udalerrri hauek osatuta: Villablanca, San Silvestre de Guzman, Sanlucar Guadiana, El Granado, Castillejos, el Almendro eta San Bartolome.	Maiatzaren 16tik 24ra. Programan parte hartzen duten udalerrri guztietan.	Programan parte hartzen duten udalerrietako klub eta elkarte ugari engaiatzen dira. Iazko jokoetan 3.000 kirolarik baino gehiagok parte hartu zuten.



2.2.3.4. Bidasoa – Txingudi mugaz gaindiko partzuergoa:

Jardueraren deskribapena	Parte hartu duten bazkideak	Eguna / Lekua	Bestelako informazio interesgarria
Bidasoa –Txingudiko Eskola Kirolaren Jaia	Bidasoa-Txingudi Mugaz gaindiko Partzuergoa	Jostaldi pilotalekua, Hondarribia / 2008ko maiatzaren 31n	Irun, Hondarribia eta Hendaiaiko udalen lankidetzaz
Bidasoako itzulia	Bidasoa - Txingudi Mugaz gaindiko Partzuergoa	Gipuzkoa, Nafarroa eta Pirinio Atlantikoetako errepideak. Etapak: Oiartzun, Irun, Hondarribia, Hendaia / maiatzaren 7tik 10era	Bidasoa Itzulia Elkarrekin antolatuta.
Txingudi Korrika	Bidasoa - Txingudi Mugaz gaindiko Partzuergoa	Irun, Hondarribia eta Hendaiaiko errepideak / martxoaren 8an	Bidasoa Atletiko Taldeak antolatuta.
Bidasoa ibaiaren nazioarteko jaitsiera hegatsekin	Bidasoa - Txingudi Mugaz gaindiko Partzuergoa	Bidasoa ibaia eta Txingudi badia / apirilaren 27an	Izurdek antolatuta, Urpean-en lankidetzaz.
Eskubaloi-selekzioen haur- txapelketa	Bidasoa-Txingudi Mugaz gaindiko Partzuergoa	Hondarribiko Hondartza polikiroldegia / martxoaren 23an	Hondarribi Kirol Taldeak antolatuta.
Neguko bela-txapelketa / Atunaren arrantzaren Txingudi Kopa / Belaontzietako Txingudi Kopa	Bidasoa - Txingudi Mugaz gaindiko Partzuergoa	Txingudiko Badia eta itsas ingurunea => neguko bela-txapelketa, urtarrietik martxora; atunaren arrantzaren txingudi kopa, uztailearen 12an; belaontzietako Txingudi Kopa, urriaren 5ean	Hondarribiko Klub Nautikoak eta Club Maritime Hendaye Txingudik antolatuta.

2.2.3.5. Consell Comarcal l'Alt Empordà:

Descripció de l'activitat / Descripción de la actividad / Jardueraren deskribapena	Socis participants / Socios Participantes / Parte hartu duten bazkideak	Lloc - Data / Fecha - Lugar / Lekua - Eguna
MASDH3 TROFEU CANIGÓ. Alt Empordà-Vallespir mugaz gaindiko lehiaketa. COPA CATALANA INTERNACIONAL DE DESCENS AMB BICICLETA DE MUNTANYA.	CONSELL COMARCAL DE L'ALT EMPORDÀ	Apirilaren 27an, MAÇANET DE CABRENYIS
XI TROFEU DE L'AMISTAT. Oinarri-futbola, mugaz gaindiko lehiaketa.	CONSELL COMARCAL DE L'ALT EMPORDÀ	Apirilaren 13an, PORTBOU



3. FINANTZAKETA

Deskribatutako jarduerak Kirolaren Euro sarearekin lotura duten erakunde, enpresa, klub eta entitateen ekarpenei esker finantzatu ahal izan dira (ekarpen zuzenak, dirutan, edo bestelako ekarpenak, hala nola instalazioak). Hauek dira aipatutako entitateak:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Andaluziako Junta – Turismo, Merkataritza eta Kirol Kontseilaritza
Portugaleko Kirol Institutua – Algarve Eskualdeko Ordezkaritza
Bidasoa – Txingudi Mugaz gaindiko Partzuergoa
Consell Comarcal de L'Alt Empordà
Isla Cristinako Udala
Sotavento Algarvio Elkarte
Bera Bera R.T.
Aviron Bayonnais
Deporte Galego Fundazioa
Universidade da Coruña
Donostia – Baiona Eurohiria
Hormadi
Gros Xake Taldea
C.H.H. Txuri Urdin
Echiquier Bayonne – Adour
Anglet Olympique Handball
Oceanic Karaté Club Biarritz
Anglet Côte Basque Basket
Ur Ikara



eurored del deporte





